

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3676

EBAZPENA, 2026ko uztailaren 29koa, HABEko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen baitira 2026-2027 ikasturtean A0A0, A1A0, A1A1, A2A1 edo A2A2 abiapuntu-mailarekin ikasten hasten diren ikasleei eta C1C1 helburu-maila duten 16-18 urteko ikasleei dirulaguntzak emateko oinarriak eta dagokion deialdia egiten baita.

Azaroaren 25eko 29/1983 Legeak sortu zuen Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE), helduen euskalduntzera zuzendua, ahalik eta euskal hiztun gehien lortzeko helburua duena.

Uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuaren bidez, helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jardura eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik jasotzen duten finantzazioa arautu zen.

Aipatu 179/2003 Dekretuaren 17. artikulua dio HABEk ezar ditzakeela, osagarri gisa, bere aurrekontu-bitartekoen mugen barruan, beste dirulaguntza mota batzuk, Dekretu horretan aipatzen diren modalitate eta euskarrietan edo homologatutako sistemen bitartez, euskalduntze-prozesuetan murgilduta dauden ikasleei zuzenduak, horien emaitza akademikoen baitan.

Bestalde, XIII. legegintzaldi honetako gobernu-programaren 43. konpromisoaren 1. ekimena hau da: «Edozein pertsonari euskara doan ikasteko aukera eskaintzeko prozesuari ekitea, pixkaka, maila guztietan, A1etik C2ra».

Illo horretatik, 2026ko Dirulaguntzen Urteko Plana onartzen duen eta 2025-2028 epealdiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzen duen 2026ko otsailaren 17ko Jaurilaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren Aginduak, Sailaren webgunean kontsulta daitekeenak, Hizkuntza Politika alorreko helburu estrategikotzat helduen euskalduntzea bultzatzea aurreikusten du.

Eta hain zuzen ere, euskara gero eta jende gehiagok jakin eta gero eta jende gehiagok erabiltzeko xede garbiarekin, euskararen erabilera sozialerako bidean jauzi bat eginez, Eusko Jaurilaritza sustatzen ari den JAUZIA GARA estrategiaren barruan, EUSKARA BONUA izeneko doakotasun-eredu berria ezarriko da ikasturte honetan, eta horren bitartez, hasierako ordainketa bakarra eginez, euskararen ezagutza-prozesuan ibilbide osoa bermatu nahi zaio ikasleari, benetako erabilera-gaitasuna lortu arte.

Aurreko xedapenak aintzat hartuta, HABEren arau organikoak onartu zituen otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuak (eta berau aldatu duen urriaren 22ko 166/2019 Dekretuak) emandako eskumenez baliatuz, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak araututakoari jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— 2026-2027 ikasturtean A0A0, A1A0, A1A1, A2A1 edo A2A2 abiapuntu-mailarekin ikasten hasten diren ikasleei eta C1 helburu-maila duten 16-18 urteko ikasleei dirulaguntzak emateko oinarriak onartu eta deialdia egitea.

Bigarrena.— Ebazpen honek ez dio administrazio-bideari amaiera ematen, eta, haren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa jar diezaioke Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango dute ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Donostia, 2026ko uztailaren 29a.

HABEko zuzendari nagusia,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

OINARRIAK

Lehenengo oinarria.— Xedea eta baliabide ekonomikoak.

1.— Oinarri hauen xedea da 2026-2027 ikasturtean A0A0, A1A0, A1A1, A2A1 edo A2A2 abiapuntu-mailarekin ikasten hasten diren ikasleei eta C1C1 helburu-maila duten 16-18 urteko ikasleei laguntza eskaintzea 2026-2027 ikasturteko ikastaroen matrikula-prezioan Ebazpen honetako baldintzei jarraikiz.

2.— Ebazpen honen xede diren laguntzetarako, 2026-2027 ikasturtean 7.000.000 euroko kopurua jarriko da, EAEko Aurrekontu Orokorretan horretarako dagoen partidaren kontura. Honela banatuko da kopuru hori:

– 2026an hasiko diren ikastaroetan matrikulatzen direnentzat: 4.819.607 euro.

– 2027an hasiko diren ikastaroetan matrikulatzen direnentzat: 2.180.393 euro.

Eskatutako dirulaguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta, % 80eraino handitu ahal izango da, baldin eta HABEren aurrekontuetan beste dirulaguntzetarako aurrekontu-partiden izakinak agortu ez badira. Aldaketa hori dirulaguntzen esleipen-ebazpena eman aurretik egin beharko da. Adierazitako aldaketa HABEko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez onartu eta EHAAn argitaratu beharko da.

3.— Dirulaguntza hau eskuratzeko, lehenik eta behin, A0A0, A1A0, A1A1, A2A1 edo A2A2 abiapuntu-mailarekin ikasten hasten den ikasle bakoitzak 120 euro ordainduko ditu euskaltegian edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuan matrikulatzen den lehen aldian. Behin diru-kopuru hori ordainduta, ikaslearen abiapuntuko mailaren arabera ordu-kreditu edo ordu-poltsa bat esleituko zaio, eta ikasleak dohainik izango ditu ordu-kreditu hori agortu arteko ikastaroetako ordu guztiak, baita maila/azpimaila bera errepikatuz ere, urtez urte hainbat ikastaro eginez B1A2 maila lortu arte, betiere epemuga baten barruan.

Dirulaguntza honetara lehen aldiz jotzen duen ikaslearen abiapuntuaren arabera, beraz, ondorengo ordu-kredituak eta epemugak finkatzen dira azpimailako, aurrez aurreko ikastaroetan, jardun bikoetan eta autoikaskuntzakoetan; autoikaskuntzan, halaber, gehieneko diru-muga batzuk ere ezartzen dira abiapuntuko azpimailaren arabera, eta diru-muga horretara iritsitakoan, agortu egingo da dirulaguntza. Hots:

Abiapuntuko azpimaila 2026-2027an Lehen aldiz eskatzen dutenak	Ordu-poltsa		Epemuga 2026-2027an hasita
	Aurrez aurre eta jardun bikoak	Autoikaskuntza	
A0A0 edo A1A0	720 ordu	1.620 euro/540 ordu	2029-2030
A1A1	520 ordu	1.170 euro/390 ordu	2028-2029
A2A1	360 ordu	810 euro/270 ordu	2027-2028
A2A2	200 ordu	450 euro/150 ordu	2026-2027

Horrez gain, autoikaskuntzan matrikulatzen den ikasleak ezingo du ikasturte bakoitzean 750 euro baino gehiago jaso, ezta 265 ordu baino gehiago erabili ere.

Bestetik, 2025-26 ikasturtean A1 edo A2 mailako dirulaguntzara jo zuten ikasleek ere baliatu ahal izango dute dirulaguntza-lerro berri hau, inolako diru-ordainketarik egin beharrik gabe, baina, hain

juxtu ere, 2025-2026 ikasturtean dagoeneko dirulaguntzaz baliatu direlako, beren epemuga urte-bete laburragoa izango da A0A0, A1A0 eta A1A1 abiapuntuko azpimaila duten ikasleen kasuan; ez, ordea, A2A1 edo A2A2 abiapuntua dutenen kasuan, hauek lehen aldiz hasten diren ikasleen epemuga bera izango baitute.

Hots:

Abiapuntuko azpimaila 26-27an 2025-26an dirulaguntzaz baliatu badira	Ordu-poltsa		Epemuga 2025-2026an hasita
	Aurrez aurre eta jardun bikoak	Autoikaskuntza	
A0A0 edo A1A0	720 ordu	1.620 euro/540 ordu	2028-2029
A1A1	520 ordu	1.170 euro/390 ordu	2027-2028
A2A1	360 ordu	810 euro/270 ordu	2027-2028
A2A2	200 ordu	450 euro/150 ordu	2026-2027

C1 mailako dirulaguntzaz baliatu nahi duen ikasleak, aldiz, matrikularen ordainketa partzial gisa, aukeratutako ikastaroaren ordu bakoitzagatik 0,60 euro ordainduko dizkio euskaltegiari edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuari, eta ikastaro bakarra egin ahal izango du dirulaguntza honen babesean.

C1C1 helburu-maila duten aurrez aurreko ikasleek 350 orduko muga izango dute eta C1C1 helburu-maila duten autoikaskuntzako ikasleek, berriz, 750 euroko muga izango dute.

Bestalde, 2025-2026 ikasturtean euskaltegian mailaren bat aitortu zaien ikasleen kasuan edo 2025-2026 ikasturteko azterketa-deialdietan mailaren bat egiaztatu duten ikasleen kasuan, aitortutako edo egiaztatutako maila/azpimaila hori izango da gutxienezko abiapuntua dirulaguntza-lerro honetaz baliatzeko.

4.– Eskaerak segidako lehiaketaren araubidea erabiliz emango dira. Kreditua agortuko balitz, une horretan bertan amaituko litzateke eskaerak egiteko epea. Funtsak agortzen direnean, EHAA n argitaratuko den HABEko zuzendari nagusiaren Ebazpen baten bidez jakinaraziko da, eta horrek berarekin ekarriko du dirulaguntza berriak bertan behera uztea. 2026ari dagokiona agortzen bada, 10.2 oinarriaren arabera jokatuiko da.

Bigarren oinarria.– Onuradun izateko baldintzak.

1.– Ebazpen honetan arautzen diren laguntzen onuradun izateko, baldintza hauek bete behar dira:

a) A1, A2 eta B1 mailetako ikasleen kasuan, A0A0, A1A0, A1A1, A2A1 edo A2A2 abiapuntu-mailarekin matrikulatu izana. C1 mailako ikasleen kasuan, berriz, C1C1 helburu-mailarekin eta abiapuntu-maila jakin batekin matrikulatuko dira eta, oro har, C1B2 abiapuntua izango dute. Dena den, C1 mailako ikasleek B2B2 abiapuntua izan dezakete, gutxienez 330 orduko aurrez aurreko ikastaro batean edo 190 orduko autoikaskuntzako ikastaro batean matrikulatuz gero.

HABEko erregistroan inskribatutako euskaltegi batean edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatu batean aurrez aurreko ikastaroren batean edota autoikaskuntzako nahiz jardun biko ikastereduko ikastaroren batean matrikulatu beharko da 2026-2027 ikasturtean. 2025-2026an B1A2 azpimaila lortua dutenek ezingo dute aurtengo dirulaguntza-deialdi honetan parte hartu.

Horrez gain, eta C1 mailako ikasleen kasuan bakarrik, 16-18 urte bitarteko adina eduki beharko dute, eta deialdi honen ondorioarako, jarraian adierazitako urte-tarteetan jaiotakoak izan daitezke onuradun:

– 2026. urtean: 2008., 2009. eta 2010. urteetan jaiotakoek egin ahal izango dute matrikula deialdi honen babesean.

– 2027. urtean: 2009., 2010. eta 2011. urteetan jaiotakoek egin ahal izango dute matrikula deialdi honen babesean.

b) Matrikularen ordainketa: onuradun izateko baldintzak betetzen dituen eskari-egileak, baldin eta A0A0, A1A0, A1A1, A2A1 edo A2A2 abiapuntu-mailarekin ikasten hasten bada, 120 euro ordainduko dizkio euskalategi edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuari. C1 mailako ikasleen kasuan, berriz, matrikulatzen den ikastaroaren ordu bakoitzeko 0,60 euro ordainduko ditu.

A0A0, A1A0, A1A1, A2A1 edo A2A2 abiapuntu-mailarekin ikasten hasten den ikasleak matrikulatzen den lehen aldian bakarrik ordainduko ditu 120 euro horiek, diru horren truke bere abiapuntuko azpimailaren arabera ordu-poltsa jakin bat izango du erabiltzeko, eta ordu-poltsa hori hainbat urte-tako ikastaroetan baliatu ahal izango du, harik eta B1A2 mailara edo laguntzaren epemugara iritsi arte.

Dena den, eskari-egilearen inguruabar pertsonalak tarteko eta euskalategiak hala ziurtatuta, ordaindu beharreko zenbatekoa 120 euro baino gutxiago bada –A0A0, A1A0, A1A1, A2A1 edo A2A2 abiapuntu-mailarekin ikasten hasten diren ikasleen kasuan–, edo orduko 0,60 euro baino gutxiago bada –C1C1 helburu-maila duten ikasleen kasuan–, baldintza betetzat emango da, baldin eta eskaera-egileak ordaindu badu kasuan kasuko egoeraren ondorioz ordaindu behar duen zenbatekoa. Azken aukera hau, edonola ere, betekizuna betetzat jotzera soilik bideratzen da eta ez du dirulaguntzaren kopurua areagotuko.

c) Ikastaroen moduluak: ikasleak matrikula egiteko hautatzen duen ikastaroak nahitaez bete beharko ditu 2026-2027 ikasturtean udal euskalategiei eta euskalategi pribatu edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei euskara-ikastaroengatik esleituko zaizkien dirulaguntzak arautzen dituzten Ebazpenetan ezarritako moduluen baldintzak. 2026-2027 ikasturterako HABEko zuzendari nagusiak onartzen dituen ebazpenetan aldaketarik badago ikastaroen moduluetan, aldaketa horiek aintzat izango dira ikastaroak antolatzerakoan.

d) C1 mailako dirulaguntza eskatzen duten ikasleen kasuan, ikastaroan, gutxienez, HEOCa-ren C1 komunikagaitasun-mailetako trebetasunetako batean azpimaila bat aurrera egitea eta ikastaroan emandako orduen % 75era joatea. Trebetasunen bat aurreratu izana euskaltegiko zuzendariaren adierazpen baten bidez jasoko da.

e) Administrazio- edo zigor-zehapenik jaso ez izana, sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edota emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik, betiere, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza-dekretuak xedatutakoarekin bat etorritik (emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina).

f) Zigor eta administrazio arloan dirulaguntza publikoak jasotzeko debekurik ez izatea, ezta laguntzak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik ere, sexua dela-eta eragindako bereizkeriengatikoa barne, betiere martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza-dekretuak xedatutakoarekin bat etorritik (emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina).

g) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.1 artikulua aurreikusitako egoeretan ez egotea, eta bereziki, zerga zein gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak egunean eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea. Horretarako, ikasleak eskari-formularioaren baitan erantzukizunpeko adierazpena egingo du, adieraziz egunean dituela zerga zein gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak eta konpromisoa hartzen duela betebeharrak horiek betetzen jarraitzeko diruz lagundutako ikastaroaren iraupena bukatu arte. Betiere, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren, hots, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta bai dirulaguntzak itzultzearekin loturikoak ere betetzen direla egiaztatzeari buruzko Aginduari 8. artikuluan gerizpean.

h) Zigor penalik edo administratiborik ez izatea LGTBIfobia egiteagatik, bultzatzeagatik edo sustatzeagatik, konbertsio-terapiak sustatzea edo egitea barne, otsailaren 28ko 4/2023 Legeak, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerakoak eta LGBTI pertsonen eskubideak bermatzekoak, 82. artikuluan ezartzen duen bezala.

2.– Dirulaguntzen deialdi honetatik at geldituko dira Administrazio Publikoak finantzatuta eskolatu diren ikasleak.

Hirugarren oinarria.– Dirulaguntzarako eskariak (I. eta II. eranskinak) aurkeztea.

1.– Eskari-egileak eskabide-formularioa (I. eta II. eranskinak) bete beharko du erakunde laguntzaile gisa hautatzen duen euskaltegian edo autoikaskuntzarako zentro homologatuan. Formulario hori betetzen lagunduko diote euskaltegiaren langileek. Eskabide-formulario horretan honakoak jasoko dira:

– Eskari-egilearen datuak eta NANA; eskari-egilea adin txikikoa bada, aitak, amak edo tutoreak sinatu behar du.

– Matrikularen prezioa edo zenbateko osoa (dirulaguntzaz baliatzeko eskubidea emango dion zenbatekoa kendu gabe).

– Aukeratutako ikastaroak izango duen ordu-kopurua; ikaslea matrikulatzen den unean ikastaroa hasia baldin badago, matrikulatzen den unetik ikastaroaren amaiera arteko ordu-kopurua adieraziko da.

– Ikasleak bere ordu-poltsan duen ordu-kopuruaren zehaztapena (hasieran esleitutako ordu-poltsa osoa eta erabilitako orduak kenduta geratzen zaion ordu-kopuru erabilgarria).

– Eskari-egilearen izenpea edo sinadura (eskuzkoa edo elektronikoa). Eskari-egilea adin txikikoa bada, aitak, amak edo tutoreak sinatu behar du.

Eskari-formularioa euskaltegietan eskuratu ahalko du ikasleak zuzenean edo modu elektronikoan.

2.– A0A0, A1A0, A1A1, A2A1 edo A2A2 abiapuntu-mailarekin ikasten hasten diren ikasleei dagokienez, baldin eta 2026-2027 ikasturtea dirulaguntza-lerro honetaz baliatuko diren lehen urtea bada, eskari-egileek dagokion ordainketaren agiria (120 eurokoa) aurkeztu beharko dute eskabide-orriarekin batera. Aldiz, 2025-2026 ikasturtean dirulaguntza-lerro honetaz baliatu baldin baziren, ez dute ordainketarik egin beharko eta, jakina, ez dute ordainagiritik aurkeztuko. Era berean, dirulaguntzaz baliatuko den hurrengo urteetan beste ordainketarik egin beharrik izango ez dutenez, urte horietan ere ez dute ordainagiritik aurkeztuko. Halere, ikastaro batean matrikulatzen diren bakoitzean bete beharko dute ikasleek dirulaguntzaren eskari-formularioa.

Ikasleak duen edo geratzen zaion ordu-poltsa baino ordu-kopuru handiagoa baldin badu egin nahi duen ikastaroak, ordu-poltsatik gorako ordu horiei dagokien prezioa euskaltegiari ordaindu eta dagokion ordainagiria erantsi beharko du. Ordu-poltsatik gorako ordu horiek euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuak duen ohiko ordu-prezioaren arabera ordainduko ditu ikasleak.

Matrikularen ordainketa ikastetxearen bitartez ala euskaltegiak edo autoikaskuntza-zentro homologatuak egindako banku-kargua dela medio gauzatzen den kasuetan, legezko froga-balioa duten bestelako dokumentu kontableak aurkeztu eta txertatu beharko dituzte erakunde horiek HABEren Q87 izeneko sistema informatikoan.

Ikaslea matrikulatzen den unean, euskaltegiak ziurtatu egin beharko du, HABEk eskainitako datu-basea erabiliz, ikasle horrek 2025-2026 ikasturtean dirulaguntza-lerro honetan laguntzarik eskuratu zuen ala ez.

Bai euskaltegiak eta bai ikasleak ere Q87 aplikazioaren bitartez jakin ahal izango dute esleutako ordu-kreditu horretatik ikasleari erabilgarri geratzen zaion ordu-kopurua zenbatekoa den, eta geratzen zaion ordu-kreditua ez bada aski matrikulatu nahi duen ikastaroa osatzeko, ordu-kreditutik gorako eskola-orduak euskaltegiaren orduko prezioan ordaindu beharko dizkio euskaltegiari.

3.– Dirulaguntzaren eskari-formularioa eta arestian aipatutako ordainketa-agiriak ikaslea matrikulatuko den euskaltegian edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuan aurkeztuko ditu eskari-egileak.

Laugarren oinarria.– Dirulaguntza-eskaria aurkezteko epea.

Eskari-egileak egin nahi duen ikastaroan matrikula egiten duenean aurkeztu beharko du dirulaguntza-eskaria.

Bosgarren oinarria.– Aurkeztutako eskariaren hutsuneak zuzentzea.

Eskari-egileak aurkeztutako eskari-formularioan okerre bat badago edo agiriren bat ekarri ez badu, hala jakinaraziko zaio eskari-egileari, eta 10 eguneko epea emango zaio okerrak zuzen ditzan. Akatsak zuzendu ezean, eskabidean atzera egin dela ulertuko da eta horrelaxe jasoko da bederatzigarren oinarrian aipatutako ebazpenean.

Seigarren oinarria.– Dirulaguntzen organo kudeatzailea.

HABEren Kudeaketa Zerbitzuko Ekonomia eta Administrazio Unitateari eta Ikuskatzailetzari dagokie deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak kudeatzea.

Zazpigarren oinarria.– Erakunde laguntzaileak.

1.– HABEko euskaltegien erregistroan inskribatuta dauden euskaltegiak eta euskararen autoikaskuntza-zentro homologatuak izenda daitezke erakunde laguntzaile, aldezturik, horretarako eskaria eginez gero (III. eranskina) eta hitzarmena (IV. eranskina) izenpetuz gero, eta betiere, zerga zein gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak egunean edukiz gero.

2.– Deialdi honen babesean erakunde laguntzaileek eskainiko dituzten ikastaroek ondoren zehaztutako orduko prezioak izango dituzte:

a) Aurrez aurreko ereduak:

– Udal-euskaltegi publikoen kasuan, udal bakoitzak argitaratutako prezio publikoa (ikasle/orduko).

– Euskaltegi pribatuen aurrez aurreko ikastereduan orduko prezioa euskaltegi bakoitzak duen ikasle/orduko tasa izango da. Prezio horiek ezin izango dira ezaugarri bereko ikastaroetakoak baino garestiagoak izan.

b) Autoikaskuntza ikastereduan ikasten duten ikasleek ordainduko duten prezioa, gehienez, ikasteredu honetako gainontzeko ikasleek ordaintzen duten berdina izango da.

– Udal-euskaltegi publikoen kasuan, udal bakoitzak argitaratutako prezio publikoa (ikasle/orduko).

– Euskaltegi pribatuen autoikaskuntza-ikastereduan eta autoikaskuntza-zentro homologatuen kasuan, ikasle horiek ordainduko duten orduko prezioa, gehienez, gainontzeko ikasleek ordaintzen duten berdina izango da.

Autoikaskuntzako ikasleek, gehienez, lehenengo oinarrian ezarritako dirulaguntza jasoko dute.

3.– Erakunde laguntzaileek lankidetza-hitzarmen bat sinatu beharko dute HABErekin, non arautuko baitira erakunde laguntzaileek bere gain harturiko baldintza eta betekizunak. Horretarako, deialdi honetako III. eta IV. eranskinak beteta aurkeztuko dituzte, Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoko erregistroaren bidez.

4.– Ebazpen honetan ezarritako baldintzak betez matrikulatu diren euskara-ikasleen dirulaguntza-eskaerak kudeatu eta izapidetuko dituzte erakunde laguntzaileek. Deialdi honen hirugarren oinarriko dokumentazioa jaso eta baldintzak betetzen direla egiaztatutakoan, dagokion dirulaguntza aplikatuko dute matrikulan. Dirulaguntza-eskabidearen formulario-inprimakia (I. eta II. eranskinak) eskatzaileak sinatu beharko du, eta adin txikikoa izanez gero, baita haren tutoreak ere, eskuz edo elektronikoki. Ondoren, jasotako eskabide-formularioak eta ordainagiriak (edo honen orde, legezko froga-balioa duten bestelako dokumentu kontableak) HABEri igorriko dizkiote erakunde laguntzaileek Q87 aplikazio edo programa informatikoaren bidez, ondoren ezarritako epeetan.

– 2026ko azaroaren 6a (dirulaguntzaren esleipen-ebazpena abenduaren 11 baino lehen gauzatu ahal izateko).

– 2027ko apirilaren 16a (dirulaguntzaren esleipen-ebazpena maiatzaren 21a baino lehen gauzatu ahal izateko).

– 2027ko irailaren 17a (dirulaguntzaren esleipen-ebazpena urriaren 23a baino lehen gauzatu ahal izateko).

Halaber, aipatutako data horietarako (2026ko azaroaren 6a, 2027ko apirilaren 16a eta irailaren 17a) euskaltegi bakoitzak, arduradunak sinatuta, epe horretan dirulaguntza eskatu duten ikasleen zerrenda bidaliko dio HABEri. Zerrenda horretan ondoko hauek agertuko dira: ikaslearen izen-abizenak, NANA, ikastaroaren truke ikasleak ordaindu beharko lukeena (udal-euskaltegietan, udalak onartutako prezio publikoen arabera), ikasleak ordaindu duen kopurua, eta ikasleak HABEtik jaso beharko lukeen dirulaguntza.

Ez da onartuko epe horiek igaro ondoren bidaltzen den aurretiazko matrikularik. Halakoetan, euskaltegiaren edota euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuaren kontura izango da matrikula horri dagokion dirulaguntza, eta ezingo zaio kostu hori ikasleari jasanarazi.

5.– Erakunde eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatu beharko dute, erakunde laguntzaile izendatzeko egintza eman aurretik. Betetze horri eutsi beharko zaio lankidetza zehazteko sinatzen den hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

Betebehar horiek betetzen direla egiaztatzeko, zerga-organo eskudunek edo Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako administrazio-ziurtagiri positiboak aurkeztu beharko dira.

HABEk, elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, dokumentu horiek zuzenean eskatuko dizkie organo eskudunei. Erakunde interesdunak horren aurka egiten badu, bere kabuz aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak.

6.– Erakunde laguntzaileek ezin izango dute zehapen penal edo administratiborik jaso LGTBIfobia egin, bultzatu edo sustatzeagatik, bihurketa-terapiak sustatu edo egiteagatik, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan ezartzen den bezala.

Zortzigarren oinarria.– Ikastaroen dirulaguntza.

Euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuak ezarria duen matrikula-prezio osoari 2. oinarriaren 1.b) atalean ezarritako 120 euro horiek (A0A0, A1A0, A1A1, A2A1 edo A2A2 abiapuntu-mailarekin ikasten hasten diren ikasleen kasuan) eta 0,60 euro/orduko diru-kopurua (C1C1 helburu-maila duten 16-18 urteko ikasleen kasuan) kenduko zaio, ikaslearen aurretiazko ekarpen gisa, kontuan hartuta matrikula-prezioak 7.2 oinarrian aurreikusitako muga barruan ezarri behar direla.

Barnetegiek antolatutako ikastaroetako pentsio-gastuak ez dira dirulaguntzetan sartuko.

Bederatzigarren oinarria.– Ikasleen dirulaguntzak esleitzeko ebazpena.

1.– Deialdi honetan zehaztutako irizpideak aplikatu ondoren, HABEko zuzendari nagusiak euskara-ikasleen dirulaguntza-eskariak ebatziko ditu, eskabide-formularioan zehaztutako zenbatekoari jarraikiz (3. oinarriaren 1. puntua), zazpigarren oinarriaren 2. puntuan jasotako prezio-muga baitan dauden matrikula-prezioak oinarritzat hartuz eta erakunde laguntzaileek onuradun izateko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren.

Ebazpenak epe hauetan eman eta jakinaraziko ditu HABEko zuzendari nagusiak:

2026. urtean abiatutako ikastaroetan matrikulatu diren ikasleen dirulaguntza-eskariak 2026ko abenduaren 11 baino lehen ebatziko dira. Horretarako, zazpigarren oinarriaren 4. atalean ezarritako epeen barruan igo beharko dituzte erakunde laguntzaileek antolatutako ikastaroen eta matrikulatutako ikasleen datuak eta azken oinarri horretan aipatutako ikasleen zerrenda HABEren Q87 sistema informatikora.

2026. urtean hasitako ikastaroetan beranduago matrikulatu diren ikasle berrien dirulaguntza-eskariak eta 2027. urtean zehar abiatu diren ikastaroetan matrikulatu diren ikasleen dirulaguntza-eskariak 2027. urtean ebatziko dira, zazpigarren oinarriaren 4. atalean adierazitako egunetan (hau da, maiatzaren 21ean eta urriaren 23an). Horretarako, laugarren oinarrian ezarritako epeen barruan igo beharko dituzte erakunde laguntzaileek antolatutako ikastaroen eta matrikulatutako ikasleen eta azken oinarri horretan aipatutako ikasleen zerrenda datuak HABEren sistema informatikora (Q87).

Ebazpen hauek interesdunei jakinaraziko zaizkie Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikokoaren iragarki-taulan (<http://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>) eta Q87ko aplikazioan ikasle bakoitzaren esparruan argitara emanez. Emandako dirulaguntzen publizitateari dagokionez, HABEren webgunean argitaratuko da (www.habe.euskadi.eus).

2.– Dirulaguntzaren esleipen-ebazpenean eskari-egileari eman zaion dirulaguntza-kopurua zehaztu behar da eta arrazoituta adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi egin direla, hala gertatuz gero.

Era berean, emandako dirulaguntzen publizitateari dagokionez, aipatutako ebazpenak HABE-ren web-orrian argitaratuko dira Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikokoaren iragarki-taula elektronikoan argitara ematen diren egun berean.

Eskabideen gainean emandako ebazpenek ez dute bide administratiboa agortzen eta interesdunek horien kontra gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuari, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan jasotakoaren arabera.

Ebazpenaren jakinarazpena aurreikusitako epe-mugan jasotzen ez bada, onuradunek ulertu ahal izango dute beren eskabidea ezetsia izan dela, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikuluan zehaztutakoaren ondorioz.

Hamargarren oinarria.— Matrikula-dirulaguntzaren kudeaketa ekonomikoa.

1.— Ikasleak egindako matrikula bakoitzagatik ikastaroa eman duen erakunde laguntzaileak jasoko du zuzenean HABEtik matrikula-prezioaren dirulaguntzari dagokion zatia, ikasle onuradunaren kontura eta haren izenean.

2.— Lehenengo oinarrian ezarritako zuzkidura, edo, hala badagokio, oinarri horretan aurreikusitako gehikuntzaren ondoriozkoa, ez bada nahikoa 2026ko azaroaren 6an egindako eskabideei dagozkien laguntza guztiei erantzuteko, hala ezin direnak 2027an esleitzeko dira, lehenengo oinarrian jasotako zuzkiduraren kontura edo, hala badagokio, oinarri horretan aurreikusitako gehikuntzaren ondoriozkoaren kontura.

Ordainketa hori ikasleek HABEekin edo Eusko Jaurlaritzarekin egiteke dituzten prozedura betearazleen ondorioz konpentsatzen bada, HABEk egoera horren berri emango dio eragindako euskaltegiari eta konpentsatutako kopurua ikasleari ordaindu beharreko guztizko kopurutik kenduko da eta ikasleak euskaltegiari ordaindu beharko dio.

Laguntza-eskaria aurkezteak euskaltegiari egoera horren berri ematea onartzea dakar.

Euskaltegiek eta autoikaskuntza-zentro homologatuek HABEtik hiru alditan jasoko dituzte ikasleen matrikula-prezioaren dirulaguntzari dagokion zatiaren zenbatekoak, ikasleen kontura eta haien izenean, 7.4 oinarrian zehaztutako epeetan, betiere 9. oinarrian adierazitako dirulaguntza esleitzeko ebazpenak eman eta jarraian. Horietako ordainketa bakoitza ordainketa bakarrean kitatuko da banku-transferentzia bidez.

Hamaikagarren oinarria.— Onuradunaren betebeharrak.

1.— Onuradunek, oro har, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan jasotakoak bete beharko dituzte.

2.— Eta zehazki, ebazpen honetan araututako dirulaguntzen onuradunek beti izango dituzte honako betebeharrak:

– Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, dirulaguntza eman zaiola jakinarazten zaion egunetik hasi eta 15 eguneko epean onuradunak berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da.

– Errendimendu akademikoari buruz ikasleak konpromisoa hartuko du matrikulatu den ikasturoroko klaseetara joateko eta bertaratzeko, ikastereduaren arabera proportzio ezberdinetan, bigarren oinarriaren d) atalean ezarritakoarekin bat etorritik.

Orohar, ikastaroa amaitu aurretik ikasle batek baja ematen baldin badu, ikastaroan izena eman duenetik ikastaroaren amaiera arteko ordu-kopuru osoa deskontatuko zaio ordu-poltsatik, salbu eta ikastaroan jarraitzea ezinezko egiten duen egoeraren bat suertatzen ez bada (lan-egoera berri batekin bateraezintasuna, osasun-arrazoiak...); horrelakoetan baja izan arteko orduak hartuko dira aintzat ordu-poltsan ordu-kenketa egiteko orduan.

Ikastaroan jarraitzea ezinezko egiten duen arrazoiaren justifikazioa (lan-egoera berri batekin bateraezintasuna, osasun-arrazoiak...) ikasleak berak bere euskaltegian aurkeztu eta erakunde laguntzaileak Q87 aplikazio informatikora igo beharko du. HABE erakundearen Kudeaketa Zerbitzuko Ikuskatzaitzak ebatziko du aurkeztutako agiriak onargarriak diren ala ez.

– Laguntza eman duen erakundeak egingo dituen egiaztatzei eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak burutuko duen ikuskaritzari men egin beharko dio, deialdi honen bitartez eskuratu diren dirulaguntzei dagokienez. Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi bereziko neurriei ere men egin beharko die.

– Laguntza ematerakoan kontuan izandako dena delako egoera objektibo edo subjektiboa aldatu bada, horren berri eman beharko dio HABEri.

– Era berean eskari-egileak baimena ematen dio HABEri bere datu akademikoak euskaltegiei emateko deialdi honen kudeaketa bideratzeko.

Hamabigarren oinarria.– Baldintzak aldatzea, arauak ez betetzea eta itzulketak.

Deialdi honek arautzen dituen dirulaguntzez gain eta horiek ebatzi ondoren kanpoko beste dirulaguntzarik eskuratzeak HABEri horren berri ematea ekarriko du, baita erakunde honek aurretiaz emandako dirulaguntza aldatzea ere, betiere deialdi honen 8. oinarrian aurreikusitako gainfiantzaketa ekiditeko besteko proportzioan, edo onuradun izateko baldintzak mantendu ez diren proportzioan.

Hamahirugarren oinarria.– Datuen tratamendua.

Deialdi honetan adierazitako datu pertsonalak Europako Legebiltzarraren eta Batzordearen 2016/679 (UE) Erregelamenduak eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak araututakoaren arabera tratatuko dira, «Ikasleen dirulaguntzen kudeaketa» izeneko tratamendu-jardueretan, ondoren zehazten den helbururako:

– Deialdi honetan aurreikusitako prozeduren kudeaketa.

HABEko zuzendari nagusia izango da tratamenduaren administrazio-organo arduraduna.

Tratamendua beharrezkoa da legez ezarritako betebeharrak gauzatzeko.

Interesdunak bere datuak ikusteko, zuzentzeko zein ezabatzeko eskubidea izango du, baita horien tratamendua mugatzeko nahiz horien aurka egiteko ere, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

Halaber, onuradunek beren datuen tratamenduari buruzko informazio osagarria eskura dezakete helbide honetan: <http://www.habe.euskadi.eus/datu-pertsonalen-babesa-haben/s23-edukiak/eu/>

I. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA JASOTZEKO IKASLEAREN ESKARI-FORMULARIOA

2026-2027 ikasturtean A0A0, A1A0, A1A1, A2A1 edo A2A2 abiapuntu-mailarekin euskara ikasten hasten den ikaslearentzako dirulaguntza-eskaria.

Instrukzio-organo hartzailea:

HABE, HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEA

ESKARI-EGILEAREN DATUAK

* Eskari-egilea: _____

- ☐ Pertsona interesdun gisa ari naiz espedientean
☐ Ordezkarri gisa ari naiz

* Identifikazio-dokumentua: _____ * Zenbakia: _____

* Izena: _____

* Lehen abizena: _____ * Bigarren abizena: _____

* Sexua: _____

ESKARI-EGILEA ADIN TXIKIKOA IZANEZ GERO, AITAK, AMAK EDO TUTOREAK BETETZEKO DATUAK

Aita, ama edo tutorea: _____

* Identifikazio-dokumentua: _____ * Zenbakia: _____

* Izena: _____

* Lehen abizena: _____ * Bigarren abizena: _____

* Sexua: _____

Jakinarazpen eta komunikazioak hona bidaliko dira:

Espedientea tramitatzen den bitartean Administrazioak bidalitako jakinarazpenak paperean jaso nahi izanez gero, pertsona honi zuzenduko zaizkio «ikaslearekin harremanetan jartzeko datuak» atalean ageri den posta-helbidera: _____

Komunikazio-hizkuntza

Mezu elektronikoa eta abisu-mezu bidezko jakinarazpen eta komunikazioak aukeratutako hizkuntzan bidaliko dira.

- ☐ Euskara ☐ Gaztelania

Jakinarazpenetarako eta komunikazioetarako kanala

Jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzeko kanala: posta elektronikoz edo HABEren webgunean, ikasleen atalean, ebazpenak iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

IKASLEAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO DATUAK

* Lurralde historikoa _____ * Udalerria _____

* Helbidea _____

* Posta-kodea _____ * Helbide elektronikoa _____

Harremanetarako telefonoak:

* Telefono-zenbakia _____ * Telefono mugikorra _____

MATRIKULA

☐ 2026-27 ikasturtean lehen aldiz baliatuko naiz dirulaguntza-lerro honetaz.

(erantsi dirulaguntzaz baliatzeko eskubidea ematen duen ordainagiria –120 €–)

☐ 2025-26 ikasturtean A1-A2 mailako dirulaguntza jaso nuen.

(ez duzu ordainagiririk gehitu behar)

Nire abiapuntu-maila: _____

Nire abiapuntuaren arabera esleitutako ordu-kopurua:

_____ ordu (aurrez aurre)

_____ ordu (autoikaskuntza).

Esleitutako ordu-kopurutik zenbat ordu geratzen zaizkit:

_____ ordu (aurrez aurre)

_____ ordu (autoikaskuntza).

2026-2027an matrikulatutako ikastaroaren prezioa: _____ euro.

2026-2027an matrikulatutako ikastaroaren ordu-kopurua: _____ ordu.

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK:**ZERA AITORTZEN DUT:****Zerga eta gizarte arloko betebeharrak:**

☐ Zerga arloko eta gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak egunean ditut eta konpromisoa hartzen dut betebeharrak horiek betetzen jarraitzeko diruz lagundutako ikastaroaren iraupena bukatu arte.

Bateragarritasun-adierazpena:

☐ Ez dut dirulaguntzarik jaso xede eta helburu berarekin nire udaletik edo/eta ezta udalez gaindiko beste administrazio publikoetatik edo erakunde pribatuen eskutik ere.

☐ Dirulaguntza jaso dut xede eta helburu berarekin nire udaletik edo/eta udalez gaindiko beste administrazio publikoetatik edo erakunde pribatuen eskutik ere. Zenbatekoa: _____

Konpromisoen eta laguntzarako baldintzen ezagutza-adierazpenak:

☐ Eskaera hau egin ondoren, xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen aldetik beste dirulaguntzarik edo laguntzarik jasoz gero, HABEri horren berri emango diot. Jakinarazi beharreko gertaera jakin bezain laster egingo dut jakinarazpen hori, betiere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

☐ Eskaera hau egin baino lehen, ez dudala egin deialdi honetan oinarritutako beste eskaerarik.

☐ Ohartzen naiz, ikastaroa amaitu aurretik ikastarotik baja emanez gero —ikastaroarekin bateraezintasuna eragiten duen osasun- edota lan-arrazoirik adierazi gabe—, ikastaroa amaitu arteko ordu-kopurua deskontatuko zaidala nire ordu-kreditutik edo ordu-poltsatik.

Zehapen-adierazpenak:

☐ Ez dut dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten didan zehapen administratiborik edo zehapen penalik.

☐ Zorren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak amaituta ditut.

Adierazpen orokorrak

_____ k, [nire izenean]/

☐ Nire erantzukizunpean ADIERAZTEN DUT dirulaguntzen onuradun izateko Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 13. artikuluan ezartzen dituen baldintzak betetzen ditudala eta ez nagoela hemen zerrendatzen diren legezko debekuen egoera batean ere:

- Dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukerarik gabe utzita epai irmo baten bidez zigortutakoa izatea edo prebikazioagatik, funtzionario-eroskeriagatik, ondasun publikoak bidegabe eralgitzeagatik, influentzia-trafikoagatik, iruzur egiteagatik eta legearen aurkako ordainarazpenengatik edo hirigintza-delituengatik epai irmo baten bidez zigortutakoa.
- Hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaria egin izana, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jotakoa izatea, hartzekodunen konkurtsoan deklaraturakoa izatea —konkurtso horretan hitzarmen bat indarrean jarri bada salbu—, epailearen esku-hartzearen mende egotea edo uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen arabera desgaituta egotea, hartzekodunen konkurtsoa sailkatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe dagoelarik.
- Administrazioarekin egindako edozein kontratu ebazpen irmoz suntsiarazteko bidea ematea eta horren errudun deklaraturakoa izatea.
- Pertsona fisikoak, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen ordezkari izatea eta egoera hauetakoren batean egotea: Administrazio Publikoen Zerbitzura dauden Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasunen araubideko egoeraren batean eta Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako egoeraren batean. Edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargu batean egotea arau horretan edo gai hauek arautzen dituen arau autonomikoan ezarritakoaren arabera.

- Zerga-egoitza zerga-paradisutzat hartutako herrialde edo lurralde batean izatea.
- Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ezarritako ordainketak eginda ez izatea Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan zehaztutako eran (agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da).
- Dirulaguntzak lortzeko aukera galduta izatea zehapen irmo baten bidez horrelakorik ezartzen duen edozein legeren arabera. Zehazki, sexuan oinarritutako diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penala jaso izana, zehapenean ezarritako epea oraindik gainditu ez bada.
- LGTBIfobia erakutsi, bultzatu edo sustatzea, barnean dela bihurketa-terapiak sustatzea edo egitea (otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua).
- Zigortuta egotea apirilaren 8ko 7/2022 Legeak (Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeari buruzkoa) aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bideko ebazpen irmoaren bidez, harik eta neurri zuzentzaile egokiak bete eta zehapena ordaindu arte.
- Desgaitasuna duten pertsonen alde lanpostuak erreserbatzeko lege ezarritako kuota ez betetzea, edo hori betetzeko ordezkio neurriak abian jarri izana ez egiaztatzea.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ez betetzea lege ezarritako moduan. (2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6.6 eta 8. artikuluen kasuetan; 2023ko otsailaren 13ko Agindua, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).
- Eskatutako laguntza jarduera berberetarako jada onartuta edo ordainduta dauden beste dirulaguntza batzuekin bateragarria izan arren, gainfinantzaketa gertatzea. Etorkizunean xede berbererako jasotzen diren bestelako laguntzen berri emateko betebeharra dago laguntza likidatu arteko aldi.

☐ Indarrean dagoen legedian ezarritako baldintzak betetzen ditut.

☐ Hemen jasotako datu guztiak egiazkoak dira eta osorik daude, baita aurkezten dudak dokumentazioa ere, eta nire gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

☐ Jabetzen naiz ezingo naizela dirulaguntza eskubideaz baliatu, Administrazioak hurrengo egitateren baten berri izan duen unetik bertatik aurrera:

- Erantzukizunpeko adierazpen honetan edo beste komunikazioaren batean jasotzen den datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada, edo aurkeztu ez bada.
- Administrazio eskudunari ez badiot aurkeztu erantzukizunpeko adierazpena.

- Administrazio eskudunari ez badiot aurkeztu, adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa.

Eta aurreko guztien ondorioz, jakitun naiz erator litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratibo guztiez (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak erabili egingo dira eta ikasleentzako dirulaguntzak izeneko tratamendu-jarduerari erantsiko zaizkio.

- **Arduraduna:** HABE
- **Eragilea:** Entitate laguntzaileak.
- **Helburua:** Dirulaguntza hauekin lotutako prozedurak izapidetzea, ebaztea, jarraipena egitea eta kontrolatzea, errekursoak, ondare erantzukizunak, ofizioz berrikusteko eskaerak, errebokazioak, hutsen zuzenketak eta administrazio bidean egiten diren beste inpugnazio batzuk.
- **Legitimazioa:**
 - Tratamendua beharrezkoa da, lege ezarritako betebeharrak gauzatzeko eta interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko, tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
 - Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra (azaroaren 17ko 38/2003 Legea) eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutakoa).
- **Hartzaileak:**
 - Foru-aldundiak.
 - Toki Administrazioko beste organo batzuk.
 - Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.
 - Kontuen epaitegia edo erkidegoetako baliokidea.
- **Eskubideak:** datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.
- **Informazio osagarria:** HABEren web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua.

Araudia:

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra.

- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak Bermatzekoa.
- Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea

Sinadurak:

Eskari-egilea

Ama/Aita/Tutorea.....(e)n,

202...-koaren(e)(a)n

Izenpetua:

II. ERANSKINA

(C1 MAILAKO IKASLEENTZAT)

DIRULAGUNTZA JASOTZEKO IKASLEAREN ESKARI-FORMULARIOA

2026-2027 ikasturtean C1 helburu-maila duen ikaslearentzako dirulaguntza-eskaria.**Instrukzio-organo hartzailea:**

HABE, HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEA

ESKARI-EGILEAREN DATUAK

* Eskari-egilea: _____

- ☐ Pertsona interesdun gisa ari naiz espedientean
☐ Ordezkarri gisa ari naiz

* Identifikazio-dokumentua: _____ * Zenbakia: _____

* Izena: _____

* Lehen abizena: _____ * Bigarren abizena: _____

* Sexua: _____

**ESKARI-EGILEA ADIN TXIKIKOA IZANEZ GERO, AITAK, AMAK EDO TUTOREAK
BETETZEKO DATUAK**

Aita, ama edo tutorea: _____

* Identifikazio-dokumentua: _____ * Zenbakia: _____

* Izena: _____

* Lehen abizena: _____ * Bigarren abizena: _____

* Sexua: _____

Jakinarazpen eta komunikazioak hona bidaliko dira:

Espedientea tramitatzen den bitartean Administrazioak bidalitako jakinarazpenak paperean jaso nahi izanez gero, pertsona honi zuzenduko zaizkio «ikaslearekin harremanetan jartzeko datuak» atalean ageri den posta-helbidera: _____

Komunikazio-hizkuntza

Mezu elektronikoa eta abisu-mezu bidezko jakinarazpen eta komunikazioak aukeratutako hizkuntzan bidaliko dira.

- ☐ Euskara ☐ Gaztelania

Jakinarazpenetarako eta komunikazioetarako kanala

Jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzeko kanala: posta elektronikoz edo HABEren webgunean, ikasleen atalean, ebazpenak iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

IKASLEAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO DATUAK

* Lurralde historikoa _____ * Udalerria _____

* Helbidea _____

* Posta-kodea _____ * Helbide elektronikoa _____

Harremanetarako telefonoak:

* Telefono-zenbakia _____ * Telefono mugikorra _____

MATRIKULA

Erantsi dirulaguntzaz baliatzeko eskubidea ematen duen ordainagiria (eskola-orduak x 0,60 €).

2026-2027an matrikulatutako ikastaroaren prezio osoa: _____ euro.

2026-2027an matrikulatutako ikastaroaren ordu-kopurua: _____ ordu.

Matrikula gisa ordaindutako prezioa (eskola-orduak x 0,60 €): _____ euro.

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK:**ZERA AITORTZEN DUT:****Zerga eta gizarte arloko betebeharrak:**

☐ Zerga arloko eta gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak egunean ditut eta konpromisoa hartzen dut betebeharrak horiek betetzen jarraitzeko diruz lagundutako ikastaroaren iraupena bukatu arte.

Bateragarritasun-adierazpena:

☐ Ez dut dirulaguntzarik jaso xede eta helburu berarekin nire udaletik edo/eta ezta udalez gaindiko beste administrazio publikoetatik edo erakunde pribatuen eskutik ere.

☐ Dirulaguntza jaso dut xede eta helburu berarekin nire udaletik edo/eta udalez gaindiko beste administrazio publikoetatik edo erakunde pribatuen eskutik ere. Zenbatekoa: _____

Konpromisoen eta laguntzarako baldintzen ezagutza-adierazpenak:

☐ Eskaera hau egin ondoren, xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen aldetik beste dirulaguntzarik edo laguntzarik jasoz gero, HABEri horren berri emango diot. Jakinarazi beharreko gertaera jakin bezain laster egingo dut jakinarazpen hori, betiere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

☐ Eskaera hau egin baino lehen, ez dudala egin deialdi honetan oinarritutako beste eskaerarik.

☐ Badakit matrikulatutako ikastaroan gutxieneko aurrerapen bat izan behar dudala eta % 75eko bertaratzea bete behar dudala hautatutako ikastereduaren arabera proportzioan. Ulertzen dut aurrez aurreko ikastereduan % 75ekoa izango dela gutxieneko bertaratze hori. Eta autoikaskuntza ikastereduan ordu teorikoen % 75 betetzeaz gain, ikastaroaren ordu teoriko guztien % 7,5 mintza-saioetan izan beharko da. Jabetzen naiz, gutxieneko bertaratze hori bete ezean, HABEk aintzatetsitako dirulaguntza ordaindu beharko diodala HABEri, «dirulaguntzaren itzulketa» kontzeptupean, eskola-klaseetara bertaratu ez naizen proportzioan. Ohartzen naiz gainera ikastaroa amaitu aurretik, ikastarotik baja emanez gero, —ikastaroarekin bateraezintasuna eragiten duen osasun- edota lan-arrazoirik adierazi gabe— ikastaroa amaitu arteko gutxieneko bertaratzearen baldintza bete gabe, bete gabeko zatiarekin proportzionala den matrikula-zatia ordaindu beharko diodala HABEri, «dirulaguntzaren itzulketa» kontzeptupean.

Zehapen-adierazpenak:

☐ Ez dut dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten didan zehapen administratiborik edo zehapen penalik.

☐ Zorren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak amaituta ditut.

Adierazpen orokorrak

_____ k, [nire izenean]/

☐ Nire erantzukizunpean ADIERAZTEN DUT dirulaguntzen onuradun izateko Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 13. artikuluan ezartzen dituen baldintzak betetzen ditudala eta ez nagoela hemen zerrendatzen diren legeko debekuen egoera batean ere:

- Dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukerarik gabe utzita epai irmo baten bidez zigortutakoa izatea edo prebrikazioagatik, funtzionario-eroskeriagatik, ondasun publikoak bidegabe eralgitzeagatik, influentzia-trafikoagatik, iruzur egiteagatik eta legearen aurkako ordainarazpenengatik edo hirigintza-delituengatik epai irmo baten bidez zigortutakoa.
- Hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaria egin izana, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jotakoa izatea, hartzekodunen konkurtsoan deklaraturakoa izatea — konkurtso horretan hitzarmen bat indarrean jarri bada salbu—, epailearen esku-hartzearen mende egotea edo uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen arabera desgaituta egotea, hartzekodunen konkurtsoa sailkatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe dagoelarik.
- Administrazioarekin egindako edozein kontratu ebazpen irmoz suntsiarazteko bidea ematea eta horren errudun deklaraturakoa izatea.
- Pertsona fisikoak, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen ordezkari izatea eta egoera hauetakoren batean egotea: Administrazio Publikoen Zerbitzura dauden Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasunen araubideko egoeraren batean eta Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako egoeraren batean. Edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargu batean egotea arau horretan edo gai hauek arautzen dituen arau autonomikoan ezarritakoaren arabera.
- Zerga-egoitza zerga-paradisutzat hartutako herrialde edo lurralde batean izatea.

- Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ezarritako ordainketak eginda ez izatea Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan zehaztutako eran (agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da).
- Dirulaguntzak lortzeko aukera galduta izatea zehapen irmo baten bidez horrelakorik ezartzen duen edozein legeren arabera. Zehazki, sexuan oinarritutako diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penala jaso izana, zehapenean ezarritako epea oraindik gainditu ez bada.
- LGTBIfobia erakutsi, bultzatu edo sustatzea, barnean dela bihurketa-terapiak sustatzea edo egitea (otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua).
- Zigortuta egotea apirilaren 8ko 7/2022 Legeak (Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeari buruzkoa) aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bideko ebazpen irmoaren bidez, harik eta neurri zuzentzaile egokiak bete eta zehapena ordaindu arte.
- Desgaitasuna duten pertsonen alde lanpostuak erreserbatzeko lege ezarritako kuota ez betetzea, edo hori betetzeko ordezkio neurriak abian jarri izana ez egiaztatzea.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ez betetzea lege ezarritako moduan. (2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6.6 eta 8. artikuluen kasuetan; 2023ko otsailaren 13ko Agindua, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).
- Eskatutako laguntza jarduera berberetarako jada onartuta edo ordainduta dauden beste dirulaguntza batzuekin bateragarria izan arren, gainfinantzaketa gertatzea. Etorkizunean xede berbererako jasotzen diren bestelako laguntzen berri emateko betebeharra dago laguntza likidatu arteko aldian.

☐ Indarrean dagoen legedian ezarritako baldintzak betetzen ditut.

☐ Hemen jasotako datu guztiak egiazkoak dira eta osorik daude, baita aurkezten duan dokumentazioa ere, eta nire gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

☐ Jabetzen naiz ezingo naizela dirulaguntza eskubideaz baliatu, Administrazioak hurrengo egitateren baten berri izan duen unetik bertatik aurrera:

- Erantzukizunpeko adierazpen honetan edo beste komunikazioaren batean jasotzen den datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada, edo aurkeztu ez bada.
- Administrazio eskudunari ez badiot aurkeztu erantzukizunpeko adierazpena.

- Administrazio eskudunari ez badiot aurkeztu, adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa.

Eta aurreko guztien ondorioz, jakitun naiz erator litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratibo guztiez (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak erabili egingo dira eta ikasleentzako dirulaguntzak izeneko tratamendu-jarduerari erantsiko zaizkio.

- **Arduraduna:** HABE
- **Eragilea:** Entitate laguntzaileak.
- **Helburua:** Dirulaguntza hauekin lotutako prozedurak izapidetzea, ebaztea, jarraipena egitea eta kontrolatzea, errekurtsoak, ondare erantzukizunak, ofizioz berrikusteko eskaerak, errebokazioak, hutsen zuzenketak eta administrazio bidean egiten diren beste inpugnazio batzuk.
- **Legitimazioa:**
 - Tratamendua beharrezkoa da, lege ezarritako betebeharrak gauzatzeko eta interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko, tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
 - Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra (azaroaren 17ko 38/2003 Legea) eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutakoa).
- **Hartzaileak:**
 - Foru-aldundiak.
 - Toki Administrazioko beste organo batzuk.
 - Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.
 - Kontuen epaitegia edo erkidegoetako baliokidea.
- **Eskubideak:** datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.
- **Informazio osagarria:** HABEren web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua.

Araudia:

- Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak Bermatzekoa.
- Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea

Sinadurak:

Eskari-egilea

Ama/Aita/Tutorea.....(e)n,

202...-koaren(e)(a)n

Izenpetua:

III. ERANSKINA

EUSKALTEGIAREN EDO AUTOIKASKUNTZA ZENTRO HOMOLOGATUAREN ESKARIA, A0A0, A1A0, A1A1, A2A1 EDO A2A2 ABIAPUNTU-MAILAREKIN IKASTEN HASTEN DIREN IKASLEEN ETA C1C1 HELBURU-MAILA DUTEN 16-18 URTEKO IKASLEEN DIRULAGUNTZEN KUDEAKETAN ERAKUNDE LAGUNTZAILE IZATEKO DENA

Instrukzio-organo hartzailea:

HABE, HELDUEN ALFABETATZE BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEA

ESKARI-EGILEA (EUSKALTEGIAREN ORDEZKARIA)

* Identifikazio-dokumentua: _____ * Zenbakia: _____

* Izena: _____

* Lehen abizena: _____ * Bigarren abizena: _____

* Sexua: _____

ORDEZKATUTAKO ERAKUNDEA (EUSKALTEGIA)

* Identifikazio-dokumentua: IFK _____ * Zenbakia: _____

* Izena: _____

Eskari-egilearen kargua erakundean: _____

Jakinarazpen-hartzailea:

Espedientea tramitatzen den bitartean Administrazioak bidalitako jakinarazpenak honi zuzenduko zaizkio: _____

Jakinarazpenetarako eta komunikazioetarako kanala: Elektronikoa

Abisuak jasotzeko datuak:

* Posta elektronikoa: _____

* Mugikorra: _____

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza:

☐ Euskara ☐ Gaztelania

Oinarrizko datuak:

Zer lurraldetan daude erakunde eskatzailearen datu fiskalak:

*Lurraldea: _____

ESKATZEN DU:

HABEk A0A0, A1A0, A1A1, A2A1 edo A2A2 abiapuntu-mailarekin ikasten hasten diren ikasleei eta/edo C1C1 helburu-maila duten ikasleei ikastaroak egiteko emango dizkien dirulaguntzen kudeaketan erakunde laguntzaile gisa onartzea, HABEko zuzendari nagusiaren 2026ko uztailaren 29ko Ebazpenean jasotako oinarrien arabera.

ADIERAZTEN DU:

Lehenengoa.– HABEko zuzendari nagusiaren 2026ko uztailaren 29ko Ebazpenean jasotako dirulaguntza-deialdiaren oinarrietan ezarritako epeetarako ondoren zerrendatutako DOKUMENTUAK aurkeztuko dizkiola HABEri, eta horretarako Q87 aplikazio informatikora igoko dituela:

- Dirulaguntzaren eskari-egileak izenpetutako eskari-formularioa.
- Ikaslearen ordainagiria, baldin eta ordainketarik egin behar izan badu.
- Ebazpenean zehaztutako epeetan, dirulaguntza honen ezaugarriak betetzen dituzten ikasleen datuak, zerrendatuta.

Euskaltegiak, erakunde laguntzaile den aldetik, egiaztatu egingo du, HABEk eskura jarritako datutegian, eskari-egilea dirulaguntza-lerro honetan 2025-2026an onuradun izan den ala ez, eta beraz, ordainketarik egitea dagokion ala ez.

Bigarrena.– ERANTZUKIZUNPEAN aitortzen duela honako hau:

☐ Erakunde laguntzaile izateko deialdian eskatzen diren baldintzak betetzen dituela erakundeak.

☐ Baimena ematen diola HABEri ofizioz egiaztatu dezan honako baldintza hauek betetzen dituela:

- HABEren euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen Erregistroan inskribatuta dagoela eta datu guztiak egunean dauzkala.
- Giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetzaren balioak errespetatuko dituela eta, ondorioz, ezin izango dituela agerian eduki, horiei dagokienez, herritarrentzako laidogarriak izan daitezkeen, erabiltzaileen duintasuna urra dezaketen edo indarkeria iradokitzen duten ikurak edo elementuak.
- HABEri helarazten dizkion datuen gaineko interesdunei beren datuekin gauzatzen duen tratamenduari eta transmisioari buruzko informazioa aldez aurretik helarazi diela.
- Betetzen dituela indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak.
- Ez ordezkatzeko dudako erakundeak, ez ordezkatzeko dudako erakundearen gobernu- edo administrazio-organoetako kide den pertsona juridiko edo erakunderen batek ere, ez duela egin onarpen-prozesuetan edo funtzionamenduan sexuagatiko zuzeneko edo/eta zeharkako diskriminazio-ekintzarik, DLOren 13.1. artikuluan eta Euskadiko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza-dekretuak xedatutakoaren arabera (Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina).

- Ez ordezkutzen dudan euskaltegi edo erakundeak, ez eta bere gobernu- edo administrazio organoetako kide den inork ere ez duela zigor administratiborik edo penalik jaso abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Lan-arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko Legearen testu bateginetik eratorritako sexu-bereizkeriagatik eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arau-hausteengatik.
- Hemen jasotako datu guztiak egiazkoak direla eta osorik daudela, bai eta aurkezten dudan dokumentazioa ere, eta nire gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).
- Jakitun naizela erantzukizunpeko adierazpen honetan jasotzen den datu edo informazioen bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo administrazio eskudunari ez badiot aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkeztu ez badut, ezinezkoa izango dela eskari honen bidez egikaritu nahi den eskubideaz baliatzea edo jardueran aritzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera eta gainera, jabetzen naizela, aurreko guztiaren ondorioz erator daitezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboez (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

ORGANO INSTRUKZIO-EGILEAK OFIZIOZ EGIAZTATZEA

HABEk ofizioz egiaztatuko ditu, elkarreragintasun-sistemen bidez, Zerga eta Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak egunean dituela euskaltegiak edota autoikaskuntza zentroak.

.....-an, 2026koaren(e)(a)n.

Erakundearen ordezkariaren sinadura

IV. ERANSKINA

HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEAREN (HABE) ETA -----
 ----- EUSKALTEGI EDO AUTOIKASKUNTZAKO ZENTRO HOMOLOGATUAREN ARTEKO
 LANKIDETZA-HITZARMENA, AZKEN HORI ERAKUNDE LAGUNTZAILE IZAN DADIN A0A0, A1A0,
 A1A1, A2A1 EDO A2A2 ABIAPUNTU-MAILAREKIN IKASTEN HASTEN DIREN IKASLEEI ETA C1C1
 HELBURU-MAILA DUTEN 16-18 URTEKO IKASLEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZESUAN,
 2026-2027 IKASTURTEAN.

BILDU DIRA:

Ibone Bengoetxea Otaolea anderea, Jaurilaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, HABEko presidente gisa.

..... **jn./and.**, euskaltegiaren ordezkaria.

PARTE HARTU DUTE:

Ibone Bengoetxea Otaolea andereak, HABEren izenean eta hura ordezkatzuz, urtarrilaren 10eko 14/2017 Dekretuak xedatutakoaren arabera.

Bestetik, andreak/jaunak, euskaltegiaren edota autoikaskuntzako zentro homologatuaren legezko ordezkari gisa, HABEko euskaltegien erregistroan ageri denez.

Alderdi biek hitzarmen hau izenpetzeko eskumena eta gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, hori dela eta, honako hau

ADIERAZI DUTE:

1.– HABEk euskara sustatzeko ekintzak eta programak bultzatzen ditu, euskara ikasteko ahalegina egiten duten pertsonen laguntzeko neurriak jarritz.

2.– HABEko zuzendari nagusiaren 2026ko uztailaren 29ko Ebazpenaren bidez, helduen euskalduntzea sustatzeko xedez 2026-2027 ikasturterako dirulaguntzen deialdia onetsi zen, zeinaren xedea baita **A0A0, A1A0, A1A1, A2A1 edo A2A2 abiapuntu-mailarekin ikasten hasten diren ikasleak eta C1C1 helburu-maila duten 16-18 urteko ikasleak** euskara ikastera bultzatzea. Prozeduraren organo instrukziogilea eta kudeatzailea HABEko ikuskatzailatza arloa izango da eta ebazteko arduraduna, HABEko zuzendari nagusia.

3.– Deialdi horretako zazpigarren oinarriak erakunde laguntzaileekin aritzeko aukera aurreikusten du, deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona matrikulatuen eskaerak kudeatu eta izapidetzeko.

4.– Erakunde laguntzaileek kudeatu eta izapidetuko dituzte ikasle onuradunek egindako eskaerak.

5.– Erakunde laguntzaileek neurriak hartuko dituzte, dirulaguntzaren onuradunek dirulaguntzak emateko baldintzak betetzen dituztela bermatzeko.

HORREGATIK GUZTIAGATIK, Dirulaguntzei buruzko 20/2023 Legearen 12. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz eta HABEko zuzendari nagusiaren 2026ko uztailaren 29ko Ebazpenaren zazpigarren oinarriari jarraikiz, bi aldeek **HITZARMEN HAU SINATZEA ADOSTU DUTE**, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Hitzarmen honen xedea da HABEko zuzendari nagusiaren eta erakunde laguntzailearen arteko lankidetzaz bidea ezartzea, A0A0, A1A0, A1A1, A2A1 edo A2A2 abiapuntu-mailarekin ikasten hasten diren ikasleek eta C1C1 helburu-maila duten 16-18 urteko ikasleek ikastaroetan parte hartzeagatik 2026-2027 ikasturtean jasoko dituzten dirulaguntzak kudeatu eta izapidetzeko.

Lankidetzaz 2026-2027 ikasturterako da, eta hitzarmena indarrean dagoen bitartean eman daitezkeen laguntzak kudeatzeko.

Bigarrena.– Erakunde laguntzailearen betebeharrak

1) Erakunde laguntzailearen eginkizuna izango da HABEko zuzendari nagusiaren 2026ko uztailaren 29ko Ebazpenaren bidez ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona matrikulatuak eskaerak kudeatu eta izapidetzea (Q87 aplikazioaren bidez) eta HABEko zuzendari nagusiaren kontura jardutea.

2) Erakunde laguntzaileak hiru epe izango ditu dirulaguntza emango zaien ikasleen eskari guztien zerrenda ziurtatua eta agiri osagarriak aurkezteko HABEri. Horretarako, erakunde laguntzaileak Q87 aplikazio informatikoan igo beharko ditu datuak eta agiriak.

Hiru epe-muga hauek izango dira (2026-2027 ikasturtean udal euskaltegiei eta euskaltegi pribatu edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei euskara-ikastaroengatik esleituko zaizkien dirulaguntzak arautzen dituzten Ebazpenetako zazpigarren oinarriaren arabera):

- 2026ko azaroaren 6a (dirulaguntzaren esleipen-ebazpena abenduaren 11 baino lehen gauzatu ahal izateko)
- 2027ko apirilaren 16a (dirulaguntzaren esleipen-ebazpena maiatzaren 21a baino lehen gauzatu ahal izateko)
- 2027ko irailaren 17a (dirulaguntzaren esleipen-ebazpena urriaren 23a baino lehen gauzatu ahal izateko).

3) Igo beharreko agiriak. Igo beharreko agirien artean egongo dira, batetik, ikasleak egingo duen dirulaguntza-eskaera, eta bestetik, matrikula ordaindu izanaren agiria; A0A0, A1A0, A1A1, A2A1 edo A2A2 abiapuntu-mailarekin hasten diren ikasleen kasuan, 120€koa izango da ordainagiri hori, baldin eta dirulaguntza honetara jotzen duten lehen aldia bada, eta C1C1 helburu-maila duten 16-18 urteko ikasleen kasuan, ikastaroaren ordu bakoitzeko 0,60€ ordaindu izanaren agiria aurkeztu beharko dute.

C1 mailako 16-18 urteko ikasleen kasuan, matrikula-prezioaren zenbatekoa orduko 0,60 euro baino baxuagoa denean, erakunde laguntzailearen eginkizuna izango da kasuan kasuko inguruabar pertsonalak ziurtatzea.

4) Eskaria egin duen ikasleak 2025-2026 ikasturtean deialdi honetan oinarrituta dirulaguntza-eskaerarik egin duen ala ez egiaztatuko du erakunde laguntzaileak.

Hirugarrena.– Dirulaguntza ikasleari berari emango zaio, eta horri esker, dirulaguntza honetaz baliatzen diren lehen urtean ikasleek ordaindu beharreko 120 €ak kenduta – A0A0, A1A0, A1A1, A2A1 edo A2A2 abiapuntu-mailarekin ikasten hasten diren ikasleen kasuan–, edo orduko 0,60 € horiek kenduta –C1C1 helburu-maila duten 16-18 urteko ikasleen kasuan– doan izango da ikastaroa. Horrez gain, ikasleak matrikulatzeko unean ikastaro bera egiteagatik beste dirulaguntzaren bat jasotzen badu, HABEren dirulaguntza gutxitu egingo da kopuru berean. Ikaslearen matrikularen prezioaren gainerako zatia, hau da, ikaslearentzako dirulaguntza, erakunde laguntzailearen bidez kudeatuko da, eta erakunde laguntzaileak jasoko du ikastegi bakoitzean HABEko zuzendari nagusiak 2026ko uztailaren 29an onartutako Ebazpenaren 7.4 oinarriaren, bederatzigarren oinarriaren eta hamargarren oinarriaren ildotik.

Laugarrena.– Hiru euro ezarriko dira konpentsazio ekonomiko gisa erakunde laguntzailearen alde, kudeatutako eta onartutako matrikula bakoitzeko.

Bosgarrena.– Aldeek datu pertsonalen babesari buruzko araudia bete behar dute, onuradunei buruz lortutako datuei dagokienez, eta haiek eman beharreko baimena eman behar diete datuok erabiltzeko.

Seigarrena.– Hitzarmen honek urtebete iraungo du sinatzen den egunetik aurrera, eta ez da modu automatikoa luzatuko.

Hitzarmen honen xedapenak guztiz edo partez aldatu ahalko dira, aldeek hala adosten badute; halaber, aldeetarik edozeinek salatu ahalko du hitzarmena, hiru hilabete lehenago jakinarazita, eta hala gertatuz gero, aldeek hitzarmenaren dute konpromisoei eutsiko dietela onuradunei emaniko laguntzen aldi guztia bukatu arte.

Zazpigarrena.– Hitzarmen hau suntsiarazteko kausa dira hitzarmenean ezarritako klausulak ez betetzea, eta orobat hitzarmenaren izaerari dagokion beste edozein kausa ere, indarrean den legerian jasota badago.

Zortzigarrena.– Araubide juridikoa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa dauka, eta araubide juridiko-administratiboa erabiliko da hura interpretatu eta garatzeko; izenpetzaileek berariaz men egiten diote administrazio auzietarako jurisdikzioari.

Hitzarmen honetan aurreikusita ez dauden gaietan, bi lege hauetan ezarritako xedapenak aplikatuko dira: 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena, eta 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, partaideek honako dokumentu hau izenpetu dute digitalki 2026ko-ren-(e)(a)n.

Erakunde laguntzailearen ordezkaria	HABEko presidentea
-----jn./and.	Ibone Bengoetxea Otaolea